

**BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
46n. ZENBAKIA  
IRAILLA  
- 1981 -**



**ARRATE'KO AMA  
EIBAR'TARREN ZAINDARIA**

# Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

*Coupi eun moatros*

*Zenue nstca zuzan*



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO  
BILBO AURREZKI KUTXA**

# UDALDIA BA-DOAKU

Udaldia izan dalako gure oituretan eta bizikeran ebagi bat egin dogu. Batzuntzat txikiagoa, beste batzuntzat aundiagoa, baiña guztiontzat izan da igarteko lako ebagia.

Aldi onetan atsedena artzea izan da gure guraririk biziena eta artu be egin dogu ingurukoak itzi dauskuen neurrian. Lanaren ebagia bera be, geiago barik, atsedeen izaten jaku, naizta beste zeregin batzutura sartu bear.

Aldi onetan pillatuten doguz jaiak be al dogunean: Ez dago auzotegirik, ez erririk, ez eskualderik, udaldian bere jaia egin ez dauanik. Jairik entzutetsuenak uriburuetakook: Iruña'ko Fermin deunarena, Donosti'ko Aste Aundia, Gasteiz'ko Andra Mari Zuriarenak, eta Bilbo'ko Aste Nagusia. Eta orrean inguruan uri ta erri bakoitzean bere Santu Zaindaria edo bere Andra Maria'ren egunak izan diralako.

Jaiak izan naiz astegun buru-zuriak izan, gure oporlariak areatza edo ondartzetara joan dira: Zenbat berebil bideak betean! Zenbat udalari itxas-ertzetan!

Eta ibillaldiak, egun baterako naiz aste baterako naiz amabostarako. Euskaldunak ondo beteten doguz inguruko erri ta lurraldeak. Euskaldunak, Bilbo'tarrak batez be, ugari aurkitzen doguz Laredo'n, Castro'n, Kolindres'en, Linpias'en, Espinosa'n, Villarcayo'n, Medina de Pomar'en, Errioxa'ko lurralde beroan, Nafarroa'ko Auñamendi -bazter ederretan... Ori da gaurko Euskalerrria'k dauan lorezko bureztun ederra.

Udaldia ba-doaku eta lanaren ekiñaldi barria datorku. Asikeran nagikeri aundia asmatzen dogu gure barruan, baiña sartu egin bear, ez dago beste biderik: Umeak ikastoletara, gazteak ikastetxeetara, langilleak lantegietara... Eta orrez gaiñera batzarrak, etxeko ta kanpoko ardura barriak, errimiñak eragiten dituan lanak...

Gau illunaren urrengo, egun argia, ekaitzaren urrengo bare-aldia, atsedeenaren urrengo lanaldia, gartzaroaren ondoren zartzarora... dana igaroten jaku eta gure eskuetatik igeska doaku, egunerik egunera eta urterik urtera mailladi gorrian mailla bat gorago aurkitzen garala. Eta elburua, gure joan- etorrien azkena be era batera naiz bestera, ziur ikusten dogula.

Or barruan dago gure amesen tokia: Beti zerbait ohea itxaroten eta billatzen, beti egokiago geu ta ingurukoak biziteko zerbait asmatzen.

Or gure pozaldiak, elburuak lortu eta billatu doguna eskuratzen dogunean, or gure atsekabeak elburu ori laiñozko ames utsa, ezerez, izan dala oartzen dogunean.

Goazen ba, lanaldi barri onetara adoretzu ta itxaropentsu, lanak eta ekiñak bideratuko dau erria eta aurkituko dautse arazorik gorrienai urtenbidea. Eta lan barik aurkitzen diranak, geiegi aspaldian zori txarez, ikusiko al dabe euren egoerea obetuta ekiñaldi barrian.

Lanaldi barri onetarako politikalariei egin bearke jake dei berezi bat: Erri-maillan politikarako nekatuta lez agertzen jaku jentea, egin bear ez dan lana dala ori uste dabe askok, batez be gazteenen artean eta ori erriarentzat galbidea da. Bearrezko erri-arazo au ez dagigun itxi gitxi batzuz eskuetan. Egin dagigun politika-lana, alderdien bidez eta artu bear diran ardurak gogoz artuta. Ba-dago onetan zabalkunde egokia egin-bearra, asi ordurako nekatuta gagozela esan lei.

Edozen lanetarako izaten dan nekea, ez da txikiagoa izaten arlo onetan. Baiña sartu gaitzan benetan eta gogotsu. Erriak bear gaitu.

## EUSKALDUN AUSTRALIATARRA

### GUDA-OSTEAN

España'ko guda-ostean, Euzkadi'tik, batez be Bizkai'tik, Australia'ko lurralde urrifietara aldra ugariak joan ziran.

An gozaki-kañaberea ebagiterako langilleak bear ebezan. Gero lan au egiteko mekanikazko lana-besak ugaritu ziran eta askok atzera etorri-bearra izan eben.

Batzuk aberastu be egin ziran, solo aundiak erosi ebezan eta bertan dagoz.

### URBERUAGA

Oneitariko bat da Urberuaga'tar Alberto. Korte-zubiko baserririk onenean, Olalde iturri-ondoan jaioa. A lbaitez izateko ikastaroa egin eban Zaragoza'n, baña gero Australia'ra joan zan.

Zergaitik eta zertarako?

Arrazoi argi ta tolesbakoak egozan. Andragai eukan an. Au euskaldunen alabea zan. Antxe egin eben euren abia eta eta ezkondu be egin ziran. Eta seme-alabak azi be bai.

Oneik ona etorri dira eta Bilbo'n dagoz.

### JOAN-ETORRIA

Ara zer diñon Urberuaga'k: «Oindiño buruan daukot lenengo joan-aldia. Genova'tik Brisbane'ra. itxas-otziak ogei ta lau egun egin ebazan».

Urberuaga'tar Alberto gizon ikasi ta eskolatu da eta, jakiña, Australia'ren aldekoa.

Emen, Bizkaia a, bere sorterrian, illebeta batzuk daroaz baiña Australia'ko gauzai buruz gartsu egiten dau berba, batez be an dauken kirol-zaletasunari buruz. Australia'tarrak Olinpo-Jokoetan ainbat do-irabazi dabezela gogoratzen dausku. Ondar-tzak be luze ta zabalak daukez kirol jarduketan ekiteko.

### EUSKALDUNAK

Queensland inguruan euskaldunik dagoan itaundu neuntson. Baietz erantzun eustan. Bengoa, Etxenike, Gabiola, Mujika, Bilbao, Artiatx, Mugira... sendiak ezagunak ditu eta ondo bizi dirala drño.

Gernika'ko Euskaldun Australia'tar astun bat be aitatu genduan oraintsu, 200 kilo dituan Zipri. Bai, etxalde eder bat dauko eta beste bateri irabaziak ateraten dautsoz.

### ZAMEZA'TARRAK

Zameza anaiak, kortezubikoak, entzutetsuak dira. Kui-aztegia ta okelatokia daukez. Zameza'tar Gotzone'k bera Australia'rantz abiatur zanean joan-aldirik luzeena egin ebala drño. Lenengo urte-naldia izan zan. Gernika ta Mujika'tik 24 euskaldun joiazan, amerikatarren guda-ontzi guztiz astitsu baten. 40 egun egin ebezan arantz. Australia'ra eldu eta lenbaitlen lanean asi ziran. 1958n. urtean iru liberako alogora eukin (libera batek 168 pezeta balio-ebazan). Emen injinieruak be ez eben irabazten orrenbeste. Norberetzat artutako lanean ekin ezker, eguneko 5 edo 6 libera be atera eikezan.

Zameza'tar Jabi ezkongee bizi da. Joan dan urtean Kortezubiko Mister Mutil-zar izendatu eben. Eta beti umore onaz, beti bearrean. Irabazari buruz ara zer diñon: 1964'an illean 1220 pezeta irabaziko nituan eta Australia'n ori egun baten irabazten zan. Gotzone'k be antzeko zerbait diño: Nik, Gernika'n bizi-leku bat erosteko urte biko alogorak bear nituan...

### ORAIN

Orain Australia'n, toki guztietan lez, «inflazi-ño»a dago eta irabazi, gitxi gorabera emen lez egiten da.

Ez da diru-bidea ara joatea. Eta itzi be ez dabe egiten, sendiak alkartzeko izan ezik.

### EUSKEREAA

Eta euskaldun Australia'tar oneik galdu ete eben euskerea?

Ez orixe. Ba-dakie euskeraz berba egiten, ingelesezko berba batzuk nastatuta baiño ez ba'da be. Gasteleraz be ba-dakie, baiña ez ondo.

Alberto'k bere aldetik auxe jakin-erazo gura dausku: «Australia laterri benetan kirol-duna da, baiña lanerako zaletasun aundiegirik ez dauke».

---

---

# ASKATASUNA

---

Ikastoletako umeentzat (eta andientzat) antzerki-  
txoa.

Antzezlariak: edeslaria eta txakur bi: Petrukin  
eta Petrukan.

Petrukan txakur lodi-lodia maai batean jarrita ja-  
ten agertuko da. Aurrean platerak eta ontziak jate-  
koz bete-beterik... baiña samatik kateaz lotuta.

Petrukin, ostera, makal, mee, goseti, an eta emen  
zer eroango agora usainka...

*Edeslaria:*

Gure txakurrak, txakur bi dira, bi:  
Petrukin argal, eta Petrukan lodi.  
Petrukin, ikusten dozue,  
zimela da, mustur luze,  
agin zorrotzak eta txankak mee.  
Jaio zanetik onek, ez dot uste,  
iñoz dauanik esterik bete.  
Petrukan, ostera, tripandi da,  
lepoa lodia dauka,  
bizkarra bigun, ulea legun.  
Oneri ez yako faltako,  
lukainka, saltza gozo eta oillazko  
beti ugari jateko.

*Petrukan eta Petrukin*

*Petrukan:*

Kaixo, Petrukin,  
an eta emen bazterrak aztertzen,  
zertan abil?

*Petrukin:*

Nire gosea ezin yoat il!!!

*Petrukan:*

Ba... nik ezebe ez yaukat eskas:  
bildots errea, txarriki, kazulakadaz.

*Petrukin:*

Zelan, arraio, Petrukan, i konpontzen az?

*Petrukan:*

Jarri adi, Petrukin, aberats batekin,  
eta aren menpean  
biziko az bakean, etxeko atean,  
lanik egin barik,  
eguskia artzen egun guztian.  
Bizitzeko eukiko dok txabola,  
to egiteko oe bigun, epela.  
Zergatik, Petrukin, bizi orrela?  
I be bizi aiteke ni bezela!!!

*Petrukin:*

Ondo bizi az benetan,  
nire lagun, Petrukan...  
Baiña... zer daukat, or dilindan,  
ire saman, Petrukan?

*Petrukan:*

Au dok urrezko kate eder, fiña,  
nire jabeak niretzat egiña.

*Petrukin:*

Ez yoat nik, txotxo,  
ez yoat nik gura katerik  
ez diamante, ezta urrezkorik.  
I or ago lodi,  
baiña lotuta.  
Nik milla bider gurago yoat  
gosez bizi baiña askatuta.

*Edeslariak:*

Askatasuna zein eder dan  
txakurrak ba daki.  
Gure artean oraindik askok  
ez geiegi.  
Bearrezko dau gizonak jana,  
baita etxe ta bizibide ona.  
Baiña gauzarik eder-ederrena  
gizon danentzat: ASKATASUNA.

**GOIKOETXEA'TAR IÑAKI**

## ARAMOTZ'KO BASATXONUA

Bizkai ta Gipuzkoa'n basatxonu edo ermita asko dagola esateaz beste barik, ez genduke ezetariko gauza barririk esango. Edozein irakurlek daki eskualde bi oneiktako mendi-gain da beren inguru guztiak basatxonuz beterik dirala, eta, euron tartean bai ezaugarriak bere batzuk... Esate baterako Koltiza' (Balmaseda ganan) Erroke ta Donosti deunak jabole dituala; Bakio'ko Pelagi ta Zume-tza'ko Mikel deunak. Baranbio ganean, Gorbeya'rantza, Garrastatu'ko Kepa deuna'ren txadontxu apaña, danok erromanikuak eta abar. Batez be Arratia aldean eta bertan Dima'ko lurralde zaba-lean, ez da mendi-kozkor bat edo auzune txiki bat be euren basatxonua ez dabenik.

Azkenengo urteotan baiña, Bizkai'ko basatxonu-rik asko betirako ezeztuak izan dira. Ainbatzuk barriztuak be bai, baiña, barririk egin?, guk dakigunik bat bakarrik; Aramotz'eko Belatxikietan orain ogei ta amabi urte amaitu ta onetsia izan zana: Berataz zerbait idatzitea da gaurko gure asmua.

Aramotz izenaz gure aldi guztian eza-gutzen dan mendidia, Legar-mendi jat-orrizko izena, Bizkai'ko bederatzi erriren lurralde edo mendidia zan. Orain zazpie-na, Etxano ta Iurreta beste erri bakoitzari baturik aurkitzen diralako. Orrixegai-

tik gaur-egun Dima, zatirik aundiena, Iurre, Lemona, Zornotza (Amorebieta), Durango, Izurtza ta Mañari dira.

Lenago aipatu dogun Belatxikieta ize-naz ezagutzen dan bedar-laude ederrean eta pago tartean, Zornotza'ko Zuluaga-tar Emili (G. B.) gizon eukitsuari gogora-tu yakon basatxonu apain bat jaso bear ebala eta beren lurraldea zan inguru ori, bertan agindu eban barria egiteko eta, 1949'garrenan onetsi zan bera Iñaki deuna're egun beratan, bertan egin litzakon osperik aundienaz, bada, beratan jaupa edo meza ederra ospatu ondoren, zelai-une guztititik egin zan ibilte-deuna, basatxonu ortan onetsiak izan ziran iru irudiak, Iñaki deuna, bertako jabole, Matale (Magdalena) eta Menton (Alpes itali-ano)'go Bernarta (Bernardo) lepo-gañian zirala.

Zelan izan lutekean basatxonu txikitxu ortan iru irudi jarrea, jakiñarazotea egoki dala uste dogu, bada, mendigoizaleok be geure bultzadaxua emon geuntsen eta, bai Zornotza'ko emakume batzuk be, bai beren askunde egunean eta bai amaituko zan baiño lenago.

\* \* \*

Ara zelan:

Basatxonu ori is amaitu bearrean aurkitzen zala eta beste askotan lez, bertara-



tu gintzazan Galdakano'ko Ganguren'go mendigoizale batzuk eta ikusi orduan irudi batentzat bakarrik egiten ebela tokia, eta jakiñik basatxonua egiten egon zan Uriarte'tar Pell argin eta adiskide zintzua gandik zelan zan Zuluaga jauna egillea, beragana zuzendu ta eskapide bat egin geuntson; ia beste irudi bat ipiñi al-balitzake bertan, geuk mendigoizaleok ordainduta, mendigoizale guztion edo Europa'koena beintzat, goi-jabole dan Menton'go Bernarta jarrea nai gendubala, Euzkadi guztian be ez-egualako besterik. Orretara egin zan.

Ordurako, baiña, Zornotza'ko emakumeren batzuk be beste eskapide bat egiña eben; Malen'en irudia jarteko eta, orretara irurak ipiñi ziram, onetsi ziran egunean Galdakano'ko ainbat mendigoizale bertaratuz, bear zan goralpena emoteko bertan egin zan jaiari.

Idazlantxu au gertu baiño egun batzuk lenago, bertan izan gera Uriarte'tar Peli argiña ta biok basatxonu ta inguruak zelan aurkitzen diran ikusiaz ta, pozik ikusi be, bedar-landa-inguruan ainbat aterpe edo errefujio egiñak dirala azken aldian, ainbat zugatz sartu dabezala Zornotza'ko mendigoizaleak, landa-aldamen da inguruko aitz -egaletan. Benetan eginkizun bikaiña zornotzatar mendigoizaleak egin dabena, leizar, aretx, urki ta gaztañez bete bedar-landa inguruak. Zorionak adiskideak eta, jarrai asi zaren bide orre-ri.

Uda'ko jai guztietan ospatzen da basatxonu ortan jaupa donea, geienetan Zornotza'ko txauburu jaunak lauko bat bere meza gaitik inoz artu barik. Basaleizatxu ortan bilduten diran txindi puzkak, bera zaindu ta apainduteko izaten dira.

Azkenez, antziña, basatxonua onetsi zanian ateratako argazkian ikusi litzake Aramotz'eko Iñaki deuna'ren basaleiza. Benetan leku alai ta egokia ordu batzuk igaroteko.



# AURRERA-BIDEAN

## Goiria

### AURRERA-BIDEAN

Aurreraben aundiak egin ditu gure gizaldiak bere bidean batez be azkeneko urteotan.

Izadiko indarrak azpiratuta, lan-erak ugarituz alde orotan; Jakintzak eun bider geitu ditu gizonaren almenak.

Ta erlijioa? Aurrerapide au kaltegarri izango ete iako erlijioar? Zer jazoko ete beragaz atsegin-keri, irabazpide ta asmakeri-iskanbilla-tartean? Gutiz aienatuko ete da? Guztiz galduko? Ez egitan. Ez da jausiko ezilkorra baita.

Alde guztietan eta une guztietan dagigu topo erlijioagaz. Beti lez gaur be lenengo jakinaia da. Alde orotan eta ago danetan entzuten da bere izena. Bere izena darabile egunerokoak, aldizkariak. Bere izena jatetxe eta edantegietan. Bardin batzarretan lantegietan. Zergaitik? Gizandiak bere soñean daroalako.

### BEARREZKOA

Biotzak eta gizarteak bere bearra dabe. Jarri aurrerapena besterik ez daukan erri bat. Negargarria! Jakintza, gauza ona da; garrantzitsua, bearrezkoa, baiña ez da naiko.

Gaurko gizarteak jainkotxu egin dau jakintza. Beragaz ebatzi nai leukez munduko auzi guztiak. Amets! Gizonak eta gizarteak ez dabe naiko jakintza gaz. Bearrezko dabe erlijioa. Onela mintzatzen da Montesquieu: «Erljioa ezbaian jartzea norberaren utsa da ta bere aurka joatea barriz gizartearen aurka joatea».

Ona gizon argi batzuen iritxiak.

Jaungoikozko gurtza gogoz artzea Laterriaren aunditasunaren ezaugarri ziurra ba'da, erlijioa ezeste, bere ondapen ziurra da. (Makiabelo).

Sinisterik bakoak zuzentzen daben Jainkorik bako gizartea, deabruaren menpean jarritako inpernuko gizartea besterik ez da. (Voltaire).

Erljioa indartzen alegindu naz agintari nazanetik; gizartearen oiñarria ta sustraia beragan aurkitu dodaz. (Napoleon).

Gauza eziña, amets utsa da izan be erlijioar bako erria. Gizartearen izakerak berak eskatzen dau.

Ona Mussoliniren itzak: «Erriarentzat erlijioa bear bearrezkoa dala uste dot».

Eta Hartsehnren besteok: «Bai jaunak; erlijioa bearrezkoa da. Sinismenik eta erlijioar gabeko ejerzitua galduta dago; galduta gizartea ta galduta aberria».

Ta mundua ezer ez biurtuko litzake —diño Tiersek.

Itz ederrok itzi dauz Gibier idazle zorrotzak: «Onoimena erlijioagaz indartu egiten da. Inon elegoke sinismen eta lege gabeko gizonik, ez giztorik, ez moskortirik, ez lapurrik, ez alperrik, ez lizunik bere menpean biziko ba'giña. Senar-emaztemzintzoak, semealaba lotsorak, langille zurrak, aberatz ongilleak, eta txiro jasatuak eta sapokeririk gabeko menpekoak eta goikoak ikusiko gendukez alde guztietan. Gizarte-azia ebatzita legoke.

Erljioaren etsai amorratua zan Diderot jakitunak auxe idatzi eban amazpigarren mendeam. «Erljioa ikastea bear-bearrezkoa iako gaztediari. Kistar-ikasbidea bezelako libururik ez dot aurkitu naizta alegiñak egin nire alabatxoia ondo azteko.

Azketa onak erlijioa dau oiñarritzat».

Bear-bearrezkoa da beraz erlijioa gizadiaren onerako. Bear-bearrezkoa gizartean bakea ta zoriona ta zuzenbidea izan daitezzen. Alde guztietako gizonik prestuenak aitortu dabe au.

Zerura ta itxasora begira egoan bein Napoleon Santa Elena ugarteko aitz batetik.

Bere garaipeak gogoratzen egoan eta biotza pilpilka ebala iñoan: «Erriak il eta joan doaz, bakaulkiak ausi, aundiak ajenatu. Jesukristoren erlijioa bakarrik dago zutik».

Erljioak bakarrik salbatuko dau gizona. Erljioak bakarrik mundua. Euzkadi aundi ta zoriontsua gura ba'dogu, ez gaitezen ibilli mamin-mamiñean daroana berein kendu gurarik. Bereak ez diran, izan ez diran irakaspenak sartu gura dituez batzuk aspaldi baten. Lenineri, Marxeri, Maotzeri ta beste antzekoen irakaspenai bidea zabaldu gura dautse askok. Zaindu, indartu ta berotu dagigun bere izatea lez dauana.

Gure erria erlijiotik aldentzeko egiten dan guztia bere kalteko izango da.

## ADAN ETA

### EBA BARRIAK

Beñola mendiko txabola zar  
batean Peru eta Marie bizi ei zi-  
ran...

Senar-emazteak ziran... Peru  
ikazgiña zan...

Gaua illundu ezker, Peru  
baltza basotik etxeratzen  
zan, eta Marie'k prestatutako  
porru-patatak gosez irunsi egiten  
ebazan.

Bitartean, bien artean beti ezta-  
baida gogorra erabiltzen eben:

Paradisuko pekatuan nok  
euki ete eban errua, Adan'ek ala  
Eba'k.

Peru'k esaten eban Eba'rena  
zala erru guztia, berak zirikatu  
ebalako gure lenengo gurasoa...  
Adan gizagaxoa!!!

Marie'k oster, Adan zala ango  
nagusi ta buru, eta Eba'k ez euka-  
la zer-ikusirk Adan'en pekatuan...

Beti erretolika bardiña erabil-  
tzen eben bien artean, alkarrerri  
astoarenak esan arte...

#### ERREAGEA

Alako batean txabola ondolik  
Erreagea igaro zan, eta barruko  
eztabaidak eta zaratak entzunik,  
atea zabaldu eta barrura sartu  
zan.

Zer da au? Zergatik onango  
zaratak?... Zatoze neure jauregi-  
ra, antxe bai bake santuan eta zo-  
riontsu biziko zariela!!!

Eta Erregeak Peru eta Marie  
bere jauregi ederrera biziten  
eroan ebazan.

Erregeak senar-emazteai esan  
eutsen: nire jauregi onetan ederto  
baiño obeto biziko zarie: jana,  
edana, loa eta atsedena ez jatzue  
faltako, baiña kondeziño-baldin-  
tza batekin: AU, KUTXA TXO  
AU, EZ DOZUE ZABALDU-  
KO... BARRUAN SEKRETO  
BAT DAGO... ZABALTZEN  
BA'DOZUE ZUEN ZORIONA  
GALDUKO DOZUE!!!

Milla esker, Jauna. Berroren  
esana zeatz beteko dogu.

Eta Erregea, kutxa txiki bat  
mai gaiñean itxita, joan zan.

#### KUTXAKO SEKRETOAIII

Egunak joan eta egunak etorri,  
Peru eta Marie Erregearen jauregi-  
an, jan ta lo, oso pozik eta zo-  
riontsu bizi ziran. Bai, orixe!!!

Baiña Marie'ri ar batek jaten  
eutsan kolkoa, eta ar ori ezin  
ito!!!

Zer ete dago kutxatxo orren  
barruan?

Ixilik egon zaitez, andrea.  
Itziozu bakean kutxako sekreto  
orreri!!!

Baiña andreak beti ekin eta  
ekin, ez eutsan bakerik emoten  
bere senarrari. Marie'k erdi-nega-  
rrez —guzur-negarrak— beti eki-  
ten eutsan lelo bardiñari: Zuk ez

nauzu ni asko maite, Peru. Asko  
maite ba'ninduzu sekreto ori zer  
dan ikusteko kutxatxo ori zabal-  
duko zeunke...

#### PERU'REN TENTALDIA

Azkenean Peru'k aspertuta  
bere emaztetxo maiteari esan eu-  
tsan:

«Tira, ba, tira, andrea... Ez egi-  
zu negarrak egin ain gauza txiki

Ikusi daigun bein-betiko  
zer dan barruko sekreto ori...

Eta Peru'k apurka-apurka ku-  
txako atea zabaldu eban, eta... za-  
baldu eban-eko barrutik sagu txi-  
ki batek iges egin, eta zuloan sar-  
tu zan...

Eta nok sagua arrapatu?

#### ERREGEAREN ERABAGIA

Etorri zan Erregea eta kutxa  
zabalik eta utsik ikusi eba-  
nean, irri-barrez itandu eutsen:

—Paradisuko pekatuan nok  
euki eban errua, Peru?

Eta Peru'k: Nire emazteak ziri-  
katu nau-ta...

Eta Marie'k: Nire senarrak za-  
baldu dau-ta...

Eta Erregeak: Adan eta Eba  
barriok, begi-luzeok, tentelok!!!

Zoaze bizitzera,

Zuen txabola zarrera!!!

GOIKOETXEA'TAR  
IÑAKI'K



# I RU ARGÍ-IZPI BERRI

Euskeraren Batasuna Euskaldun bakoitzak bere Euskalkia ondo-ondo ezagutzea eta beste Euskalkiak errez ulertzea besterik ez da. Ortarako bide egokia iduritu yat Gipuzkeraz idatzi neban idatz-lan oneri, beste itzak aldatu gabe, aditza Bizkaieraz ipintea. Aditzen eragozpenik gabe, zuek bizkaitarrok Gipuzkeraren izpiritua eta guk giputzok Bizkaierarena gure-egiten asten ba'gara, urrats aundia emango bait dogu egiazko Batasunaren bidean. Bizkaiera edo Gipuzkera mintzatzen dogu bada, Eundik larogetitairu eskaldunok. Beraz, Bizkaiera eta Gipuzkera izan bear dabe Euskeraren Batasunaren oiñarri.

\* \* \*

Izenburuan aipatu dodazan iru argi-izpi oiek Urrestarazu'tar Andoni'k eskeiñi dauskuz. Oso idazkiño txikiak dira tamaiñuz, baiña aundiak balioz. Ez noski diru-balioz, duan (debalde) ematen bait dauz egilleak. (Ala ere, pozik artuko leukela edozein dirulaguntza, iñork eman nai ba'dautso, diño berak. Ez baita da Urrestarazu diruz, jakintzaz bezain aberatsa).

Nik emen aipatuko dautsudazan liburuxka auek gura ba'dozuz, eskatu eizuz «Txindoki» liburutegira (Uruguay Kalea 9. Urrut. 22-34-33).

\* \* \*

Gaur aztertu nai dodan idazkiñoak «Euzkera» dau izen. Orrela: «Z»z idatzia: «Euzkera». 46 orri besterik ez dauz liburuxka onek, baiña ondo merezi dauz Azkue Maixuak Arana-Goiri'ren Idazkera edo Ortografiari buruzko idazkiñoaz esan ebazan itzak: «Urrezko orriak dirala» liburuxka onen orriak.

Garrantzi aundia dau neretzat Euskerari buruz Urrestarazu'k esan daikean guziak. Iñork ez bezala ezagutzen dau bada berak gure izkuntza. Benetako izkuntzalari da Urrestarazu, Euskera ikasteko «metodo» edo irakaspede egoki baten eta Euskal-Gramatika mardul eta eder baten egillea. «Umandi» izengoitia erabilliaz idatzi ebazan bi liburu bikaiñ oiek, eta

orregaitik «Umandi» bezala ezagunagoa-da Euskalerrian Urrestarazu.

Majiña bat jendek ikasi dau Euskalerrian Euskera «Umandi»ren bi urrezko liburu oien bidez!!!

Ala ere, barkatuko al daust Umandi adiskide maiteak idazkiño oni akats-apur bat aurkitzen dautsatala esaten ba'dautsat. Gizon aundi guztiak izaten dabez beren «bereizkeritxo» bereiziak, eta Urrestarazu'k ere ba dau berea: Euskera idazteko «s» ez baiña «z» erabiltzea.

Gaur ez du iñork Euskera «z»z idazten. Len bai. Arana-Goiri izan zan «zetazale» gogorra. «Euzkera», «Euzko» eta «Euzkadi», idazten ebazan arek. Zergaitik? Beste askok bezala GURE ARBASOAK Kaukas-Mendi'tik, eguzki-aldetik etorri zirala, eta «Eusko» itzaren sustraia «Eguzki» zala uste ebalako.

Gaur ezaguna dogu gure abenda emen bertan sortu zala. Baiña ontaz Urrestazu'ren bigarren idazkiñoa aurkezterakoan mintzatuko gara. Ontan ere ez bait dator bere nerekin bat.

1920'garren urtean erabaki eban «s»aren ala «z»-ren auzi ori Euskaltzaindiak. Sortu berria zan oraindik Euskaltzaindia. Azkue lendakaria, Broussain, Kanpion, Eguskitza, Eleizalde, Intzagarai, Landerretxe, Olabide, Lande, eta Urkixo bildu ziran batzar artan eta auteskunde bat egin ondorean —8 autarki 2'ren aurka—, «S»a erabiltzea erabaki eban orduango Euskaltzaindi bikain arek.

Orregaitik gaur ez du iñork Euskera «z»taz idazten. Eta orregaitik, Urrestarazu'k «z»taren ataltxo ori bere liburutxoan ukitu ez baleu, asko irabaziko eballa, uste dot, bere liburutxo onek.

Ala ere, oso lauso-ttantta txikia dogu ori liburu ontan, eta kontuan artzea merezi ez dauna. Aurkitu eta irakurri eizu, adiskide Urrestarazu'ren idazkiño au.

# ERLEAK ETA AINGIRAK

## ERLATEGIA

Begiratu dagigun erlategi batera. Benetako lantoki biurtu dan erri bat dala ikusiko dogu.

Irurogei milla biztanle baiño geiago daukaz. Zenbakia ez da izaten erlontzi guztietan bardiña.

Guztiak egiten dabe lan, erle-mandoak izan ezik, eta oneik gitxi dira. Guztiak egiten dabe lan, zarrak eta gazteak.

Gazte-gazte diranak be biengoan egin leikee lan, erleak euren ezi-gelatik aundiak eginda urtetan dabe-ta.

Bakoitzak egiten dauan lan-mota, bere zurtasun eta eldutasunari dagokiona da, eldutasunak berak eragiten dautsona.

Edozein lantegitan lez, lanak zeatz eta maillaka banantzen dira erlategian. Erleen artean zeregiñik aundiena kanpokoia izaten da. Orregaitik ogei ta bat egun bete bear dira, kanpoko lan-maillara eltzeko.

Lenengo beste zeregin askotan egin bear dau ikastaroa: Garbitzaille, zaintzaille (jaioteko diran larbak zaintzen, kanpotik datozenen janaria artu eta gordeten dira, esaterako begiratzaille, ikuskari.

## IKUSKARIAK

Ikuskarien lana zoragarria da. Berba egiten dabe. Emon bear diran barriak besteai emoten dautsez.

Euren lagun langilleai lore-autsa ta eztigaia non dagoan, dantzearen bitartez esaten dautsee.

Eta, gauza arrigarria, kanpoko langilleak oso ondo ulertuten dautsee Esti-gai lorak inguraun ba'dagoz, ikuskariak biribilketa-dantzea egiten dabe, bira-bira-ka ibilliaz; urrin ba'dago, euren dantzea aldizka ta jarraitu barrik egingo dabe, noizean beinka; 300 oin baiño geiago bitarte ba'dagoz edo etxe bat ba'da bideko eragozpen, zortzi zenbakiaren irudia egiñaz dantzatuko dira, zortziko irudia ariñeketan egiten ba'dau, loratetia sei milla edo urriñago egon leitekela esan gura dau; zenbat eta dantza astitsuagoa, loretegia urriñago.

Ikuskariak bere bidea aize gogorren artean egin ba'dau, urrunago dagoalako adierazoko dau. Geuk be sarritan olako zerbait esaten dogu: Eragozpenik aurkitzen ez ba'dozu, ogei minutoko bidea daukazu.

## JAKITURI ARRIGARRIA

Zomorro batek orrelako izkuntza edo berbeta naste tsua erabiltea, sinistu eziñeko gauzea da. Alan eta guztiz be, erleak oraindiño naste aundiago sartzeko, bitartea adierazo ta erakusten dabe.

Eta bidea agertzeko, eurak aurkitu dabena nondik dan adierazteko, eguazkiagaz be zer-ikusia izaten dabe, ostean, ondoan, edo inguruan bira-biraka ibilliaz. Eta norabide ori eguzkiak alkartuta emotea, kanpoko erleentzat beti izaten da baliotsua.

Eguna laiñotsua izan arren, erleak ubel-margotik aragoko izpien zentzumena dauke.

Onein laguntzaz, eguzkia non dagon beti jakin leikie, gizonak tresna barik jakin ezin daben gauzea.

## IZKUNTZA NASTETSUA

Jakitunak diñoskuenez, erle langilleen izkuntzea beste pizti ta zomorroak euren alkar-bideetan erabilten dabena baiño askoz nastetsuagoa da. Gizonaren izkuntza ta alkarbideak baiño ez dira naste aundiagokoak.

Baiña jakingarriz, gizonen izkuntzaren bestera ez da eltzen. Gizonen beste ez dau irakasten. Gizonak berak ikasten dauana ta aurrekoakandik artutako jakintza daukoz, baiña erleak berezkoa baiño ez dauke, ez dauke araudirik berba egiteko eta alkarbideak sortzeko. Esangureak banan-banan adierazteko biderik ez dauke, adimenik ez dauke. Ezin dabe jakiñaz euren izkuntza aldatu, erri ezbardiñetan bizi diran erleak izkelki zerbait ezbardiñak erabilli arren. Zelan jokatu bear daben euren artu-emonetan, ez dabe iñoz irakasten.

Ez ete da or agertzen eurak baiño goragoko Adimena dagoala?

## AINGIRA DIZDIRATSUAK

Ez dozuez iñoz gogoratu aingira dizdiratsuak?

Oneik bai izaki trebeak! Begiratu dagiguzan.

Bermudetako itxas-ur urdiñetan asten da, ur otzetako aingiren edestia.

Jaio ta laster aita-amak ilten jakez eta umezurtz gertzen dira. Aldi onetan txiki ta garden agiri dira.

Euren ekinbidez, e ibillaldi luzea egiten dabe aita-  
amak bizi ziran ur otz aldeetara, Erdi-Ameriketako edo  
ango ipar-sortaldeko ibai ta ur geldietara. Beste batzuk  
Europa'ko erreketara.

Euren uger-indarrarentzat ur-aizearen joera eragi-  
lleak lagunduko dautse.

Ameriketako erreka ta ur-geldietarako aingirak, La-  
terri Alkartuetako itxas-basterretara urtebete ingururako  
aldentzen dira, baiña ordurako sasoikoen itxura artu da-  
be, atz bi luze baiño izan ez arren.

Europa'koak eldutasun geiago dauke guztiak bardiñak  
izan ez arren eta euren tokietan egoteko iru urte-inguru  
bear dabez.

Ori orrelan dala, aingira arrak itxas-bazterretan ego-  
tea naiago dabe eta aingira emeak sarri askotan ibai-gora

joaten dira ur-geldien edo aintziren billa. Batzuk gabaz  
lurrean ibiltaldi laburrak egiten dabez.

Zelan jakiten daben ur otzak non dagozan eta an bizi  
bear dabela? Gauza arrigarria, izugarria da. Nondik nora  
ibilli zelan jakiten daben, sinistu-eziñekoa da. Adimen ar-  
gitsu baten erabilliak dirala esan lei. Zazpi urtetik amabi-  
ra, euren zartzaroan, lau atzetik seirako luzerea dauke  
eta barriro abiatzen dira ibillaldi luzera. Oraingoan Saga-  
zo Itxasora doaz an umeak egin eta ilteko.

Angiria'n, erreka, ibai eta ur-geldietan bizi izaten di-  
ra, baiño jaio ta il Itxasoan.

Benetan guztiz arrigarri, erromantiku, samur eta lillu-  
ragarria, olerki zoragarria!

LETONA'K

**SAN ANTON'GO**

**DON KLAUDIO'RI**

**ZORIONAK ETA ESKERRAK**

**ZER'EN DOGU LANKIDE,**

**ABADETZAN EGIN DITU**

**BERROGEI TA AMAR URTE**

**ZORIONAK ETA EKIN AL DAN ARTE!**

(ZER)

## BERTSOTAN

Liburu au, kasetak eta guzti, bertso-lore sorta polita dogu.

1789'tik 1936'ra izan diran bertsolaririk ospetsuenak batzen ditu eta eurak ardurapean arturik, bai Eusko-Jauralaritzaren Jakintza-sailleak eta bai Gipuzkoa'ko ikastolen alkarteak, laguntasun oparotsua eskiñi dautsoe.

Egillea Dorronsoro'tar Juan. Azkenengo Prantzia'ko iraultza egunetatik (XVIII gizaldian), orduan oraindiño gure Iparraldeko euskaldunak euren lege zarrak eukezan, gure anai-arteko guda anker eta basatira arte luzatuten da.

Gaia 6 atzalburutan banatzen da. A tzalburu bakoitzean bertsolari aipagarrienera batek parte artzen dau eta orrelan errenkadan, aldiz-aldiko bertsolariakaz zerrenda egokia osoturik, Pemando Amezketarra, Barkoxeko Etxaun, Xenpelar, Bilintx, Iparragirre, Pello Errota ta Txirrita pozarren dakusguz eta dantzuguz.

Liburua, argitaldi apaiñez naiz arruntez, bakoitxaren sakelaren araberran irarrita dagerkigu.

Niretzako garrantzitsuena da, liburuagaz batera kasetak bi argitaratu dabezela eta eurretan 40 bertsolari-soiñu, egokienetarikoak

eta txik ezagunak, ziur entzule guztien alaiagarri diranak sartu dituela.

Kasetak gaur-eguneko eziketan erabiltea, is bearrezkoa izan bear litzake.

### ZIGOR-LEGEAK

Euskal Zigor-Lege eskubideen iturburuak, XI'garren gizalditik XVII'garren gizaldiragiño, Maria Angeles Larrea, Rafael Mieza ta Antonio Beristain'ek batuak argitaratu ditu liburu baten «La gran Enciclopedia Vasca»k.

Julio Caro Baroja'ren itzaurrea daroa.

Amaikagarren gizalditik ama-seigarrenera, zigor-legeen oiñarri lez bagiratu geinke. Zigor-legeak aldi orreitan gertatu ta aziak izan zirala esan lei.

Antonio Beristain'ek eskubide oneitzaz itz egitean benetako euskaldun baten barne-muiñean idoro geinkezala gaizkin errudunaren itxaropen eta norkiaganako «adeitasuna ta begirunea» diñosku: Bere eritxiz, liburu au gai onetan sakondu gura dabenantzat egoiki-egokia da.

Sarrera orokor baten gai onei buruz diardu: A spaldi bateko euskal eskubideak, euren lengo azi-

orrazia, euren aurrerapena, aldakuntzak, berezitasunak. Guzti oneik errege batzuk emon euskuezan foru banaka batzun «berarizko legeak» alderatzen ditu.

Ondoren bibliografi-oar batek darrai eta gero sarrera txiki bat eta bost gizaldi onein barnean idatziriko ta zigor ta auzi-legeen buruzko 17 lege arauzko texto-idatziak dagerkiguz.

Beristain'en ustez, lau dira guztien artean berezienak: Juan Nuñez de Lara'ren Zigor-Lege ingurraztia; Anaidiaren Ingurraztia, 1394'garren urtekoa; Gipuzkoa'ko Anaidiaren ingurraztia; 1397'an urtenikoa ta 1452'an irarria izan zan Bizkai'ko Foru Zarra.

Azkenez, liburuan idatziriko idazki-agiriak errezago ulertzeko, itz zarren iztegi bat dakar.

Gaien aurkibide batek eta araubidezko beste batek osotzen dabe liburu interesgarri au.

Maria Angeles Larrea ta Rafael Mieza Deustu'ko Ikastetxe Nagusian irakasleak doguz. Antonio Beristain Gaizkin-Iztia edo kriminalojiari buruzko Euskal Iraskundearen zuzendaria da. Iraskunde onen babesean argitaratu da liburu.

# CUBA BARRUTIK (VII)

# POLITIKA EGOERA

## CASTRO NAGUSI

Cuba'ko politika egoeraz itz egitean, gizon au gogoratu bearra dogu. Danok ezagutzen dogu; baiña ondo ezagutzen ete dogu, gero!

Cuba'ra joan baiña leen, Castro eta bere ingurua ezagutzeko gogo bizia neuan. Entzunda neukanetik politiko zoragarria zan; telebisioan itz egiten euan bakoitzean, jende guztia lilluratura itzen euan; zapalduta eta lurra jota egoan Cuba au askatu eta jaso euan; eurak baiña txiroago ziran laterriei laguntzen eutsen; kultura aldetik cubatar danak ikasi euen irakurtzen eta idazten, eta ikasketarik egin nai euanak, doan egiteko era euan eta abar, eta bar...

Guzti oneik entzun edo irakurri ostean, Cuba mundu barri bat iruditzen jatan. Eta zelan ez bera ikusteko gogo?

## CASTRO KANPOEDER!

Nire ametsak asetzeko eguna be etorri jatan. Eta Cubara eltzean aurretiz entzun edo irakurritakoa neure begiekaz ikusteko gogo bizia neuan. Eta gauza guzti areik egia ziran edo ez benetan jakiteko, bertako libururik ez irakurtzeko erabagia artu neuan. Irakurtzetik ikustera alde aundia dago, eta beti be ikusitakoa irakurritakoa baiña siñest-errezagoa izan, izan be. Baiña egia esan, ez dago alde makala kanpoan entzuten danetik bertan ikusten danera.

## GORA CASTRO!

Baten baiña sarriago ikusiko doguz afrikatarrak edo ego-amerikatarrak Castro goratzen, Castro'ri ikusgarritzko abegi onak egiten eta abar. Eta alde baretik, euren arrazoiak dauez. Ezin ukatu Castrok emoten dautsezan diru eta militar laguntzak, bialtzen

dautsezan janari, osagai, osagille eta maixuak, eta abar eta abar.

Izatez Castro eta bere ingurukoak «internaciona-listak» dira. Baiña... eta beste cubatar guztiak, zer pentsatzen ete daue besteak? Ona emen ikuspegi baten bigarren alde.

## LEENENGO ETXEA KONPONDU BEARKO!

Castro'ren jokabideaz bat ez datozenak be ugari dira. Onein iritziz, Castroren jokabidea ez da inondik be zuzena: atzerriak konpondu baiña leen norberaren laterria konpondu bear da. Eta onetan ez daue aserik eskatzen, ez. Bear-bearrezko diran gauzak eskuratzea baiña ez daue eskatzen, eta onein artean, esate baterako, janaria, jantziak, etxe-bizitza egokiak eta transporteak.

## CASTRO'REN POLITIKORIK ONENAK


Bere politika egoerari iraun arazteko politiko bereziz inguratuta dago. Onein artean Raul Castro, bere anaia, eta Ramiro Valdes ministroa aurkitzen dira. Atzerrian be adiskide onak ditu, eta ezin aitzu bere aitabitxi: Rusia, ildako Tito eta Agostino Nieto.

## CASTRO'REN AURKAKOAK!

Castrok'k Cuba'n «ez dau» areriorik, edo-ta, obeto esateko, ezin dau izan areriorik. C. D. R. taldez (Comitē de Defensa de la Revolucion) beterik dauka ugarte guztia. Usterik gitxien daan tokian aurkitzen dira eta eurori esker dau Castro'k dauan indarra. Talde oneik emengo poliziaren antzerako talde batzuk dira. Agintari jarraitze-ko Castro'ren asmakizun onena!

PIRU LEGARRETA

# JUAN ANTXIETA BIZKAIA'N



Gure Zer'eko 42'garren zenbakian atsegiñez irakurri neban «URKIOLAK» izenpetuta, Juan de Antxieta-tzaz idatzitako lan polita, or emenka, irudigille entzutsuak egindako lan ederrak nun dagozan izentatuaz gero, auxe diño: «Antxieta beste erri ta uri askotan be ibili zan eta irudi eder asko egin ebazan eurotan bere».

Uri orreitatik bat, idazti ta aldizkarietan iñoiz bere izentatu ez dana, Bilbo da.

Onetzaz zerbait esan gura neuke. Emen Bilbon, ertilari gorengo orrek egindako lanak baditugu, ain zuzen be San Anton parrokian, bertan, pizkunde-errenazimentu erako atarian, Antxieta'k egiñiko bi irudi, zein baiño zein ederragoak dagoz.

Kepa ta Paul deunen irudiak dira izan be.

Kanpotar batek baiño geiagok irudi onek ikustean, bat baten esan dauste: Miguel Angelek egiñak dira irudi onek ez?

Ezpai barik, eurak ezagutzen eben Miguel Angelek egiñiko Moisesen irudia ta emengo irudiok aren antz aundia dabelako, orregaitik euren itauna. Santu onek Miguel Angelek egiñak dira, ez?

Emen dagozan irudi biok arrizkoak dirudie baiña ez didira arrizkuak, zurezkoak baiño; ori bai, arri margoz margoztuak.

Baleiteke irudi onek antxiñetan eliz barruan egonak izatea eta gero eliz atarian ipinteko arri margoz margoztu.

Parroki onetako aldare buruerretaula mendeak zear sarritan aldatua izan da.

Aoz esaten da, ingi-paperetan ez da ezer agiri, emengo paper asko guda ta beste jazoera batzuk galduek diralako, aldare buruerretaula oso bat Antxieta'k egiña izan zala.

Orain nun da aldare buru ori?

Baiña, ain zuzen be Pedro ta Paolo santuen irudi biok eta orain aldare buruko gurutze deuren in-

guruan dagozan, Antxieta'k egiñiko ozka errelebe aundi biak, antxiñako aldare buru aundiaren ondakiñak izatea.

Orain aldere buruan dagozan ozka aundi ederrok, Augusto Laita irudi barrizaille trebeak barriztuak izan dira. Irudi batean Jesus'ek egiñiko azken aparria agiri da eta bestean Jesus bere ikasleai oiñak garbitzen agiri da. Bai Kepa ta Paul'en irudietan, bai ta be, aldare buruko ozka aundietan Antxieta'ren ezaugarria agiri da.

Irudi onek Antxietak miragarritz osotuak dira, Miguel Angel aundiaren antzera, Antxieta'k aren antzera, bere irudiai bizirik dagozanen antza erantsiten dau-tse.

Irudiok bizirik egoteko itz egi-tea baiño besterik ez dabe bear.

Olako argia ta bizitasuna dauke izan be Antxietaren irudiok.

Orregaitik Antxieta'ri, Miguel Angel euskalduna esaten iako.

Berau lako ertilari-irudigille larregi be ez daukaguz euskaldunok eta daukaguzanak argitaratu, erabilli ta goraldu bearrean gagoz, beste batzuen eredutzat, orrela jarraillak geituko dira gure errian eta batez bere orain geure buru-jabetzan geure ikastetxe on eta askogaz erri onen ertilaritza goren-gotuko dala uste dogunean.

Eskerrak Antxieta'r eta beste gure ertilari guztiai gure erriaren oore ta aunditasuna munduaren aurrean agertu dabelako.

GALLASTEGI'TAR  
KAULDI

# GIZA-ARLOAK

## VI

*Euskeraz jaio nintzan,  
bazter zoragarrian  
euskaldun bizi naz.  
Zure itz ta lekuko  
Euzkadin izan nai dut  
amaren biziaz.*

*Arrituta naukate  
arrizko gurasoak  
errien artean;  
arbel, aizkora, atxur  
lagun zituelarik,  
izerdiz lanean.*

*Arrizko aro ortan,  
zer izanen ederren  
Euzkadi zarrean?..  
Goi ortzeko izarrak  
itz biurtu al ziran  
izkuntz ederrean?..*

*Denporarik zarreenen  
ziñaldaritzarako  
autatuak gara;  
giza seme zar areen  
odola eta itza  
doguz gora gora!*

*Mendi onen artean,  
adimen garbi areek  
biotza urrezko;  
itzari ezarrita,  
zirena itzi eutsen  
odol ta arrizko.*

*Ederrez urtzen nago  
arbasoei begira  
ene lur maitean;  
bizitza ta izkuntza  
bitxirik garbienak  
ditut biotzean.*

## VII

*Izkuntza garbal onen  
jakituria nai dut  
nere begietan;  
zure bizi guztian  
sortzetik zara illezkor  
euskal mendietan.*

*Zer daukazu, arkaitza,  
eguskira begira  
arri giarretan?..  
Zer du euzko semeak  
urrezko biotzean  
euskeraz izketan...*

*Itzalez arrituta  
euskeraren ederrez  
ezin naz aspertu.  
Zure bizia gaitik  
landu nai neuke itza  
eta zu maitatu.*

*Egaz doa aizea  
euzko jakituritan  
euskeraz mintzatzen;  
bizia dariola  
zelai ta mendi zear  
egiak zabaltzen.*

*Euskaldun arbasoak,  
konturatu al ziñeen  
arrizko aroan...  
millaak urteak zear  
biziko ziñatela  
zuen itz arloan?..*

*Egiazko izkuntza,  
gizonaren argia  
ete zan euskera?..  
jakitsuak lurrean  
gaur, ikasten jabiltzuz  
zure izakera.*

## VIII

*Lorerik ederrena  
arrosa gorria da  
baratza erdian;  
usain, margo ta eder,  
goxo, zabaltzen ditu,  
goizero, aidian.*

*Biotzeko arrosa,  
odolez doan garra  
euskerak, joria;  
izkuntza zarrenetan  
bakar geratu zara  
egi letz argia.*

*Zu zara Euzkadiko  
Aberriaren itza  
arbasoen garra;  
millak urteak zear  
enda zar onen giltza  
euskaldun giarra.*

*Gizon zarreen aroan,  
gogoz, laztanduko dut  
enderri maitia;  
zure odola daukat,  
euskal arriz egiña,  
arbaso bizia.*

*Zu lantzen bizi nai dut,  
izkuntza arrigarri,  
jakintsuen duiña;  
odola emon nai dut,  
aragia urundu,  
ta suz erre miña.*

*Euskaldunan bizia  
lanez ta itzez dator,  
burnizko egia;  
zu, bakar, izan zara  
oñeztarri argia,  
eusko itz arria.*

# JOSTUN ADORETSUA

### SASI-ARTEAN

Jostun bat bere erritik beste batera joaten ei zan. An astebete egin, eta larunbatean etxera.

Etixeruntz etorren bein, kaka egiteko gogoia etorri jakon, eta orretan asi zan, bide-bazterrean.

Orduko aldietan, gizonetzkoak be andrazkoak lez, atzetik tiranteak erabilten ei ebazan. Eta jostun orri, bere gauza ori egiten egoen bitartean, tirante areitatik sasiak oratu eutsoen eta gau osoa emon eban jostunak:

Itzi naizue... itzi naizue! —esan eta esan.

Urrengo goizean, inguruetara begiratu... ta sasia zala ikusi ebanean, artaziak gerritik atara, eta rrast, ebagi ei eban.

Gizona izan ba'litz, bardin egingo neutso-esan eban orduan jostunak.

### LAPURRAK

Gero, goizean etxeratu zanean, andreak:

Au gizona! Bart gau osoan emen egon nok i noz agertuko...

Bai, etorriko nintzonen, bai. Baiña, zazpi lapurrek urten jausten.

Dirua be kendu daue, beraz?

Niri dirua kendu?... Artaziak eskuan daukadazan artean... ezta!...

Ik orrenbeste adore? Ago isillik... ago isillik!

Bai, niri tresna oneik eskuan dodazan arte, ezer kentzekorik ez don iñor.

### ANDRAZKO MAIÑAK

Urrengo astean, osteria be, joan zan aste guztirako. Larunbat arratsaldean, bere emaztea urten jakon bidera, eta gizon batena zirudian abots lodiaz, esan eutson:

Geldi or!... Ona diru orreik!

Jostun gizajoak, bestea lapurra zalakoan, oso osorik emon eutson katanarrua.

Eta ortxe egon geldirik, nik esan arte.

Eta lapurtzako emaztea bere etxe ondora eldu zanean:

Erdu orain!

### JOSTUNAREN ZORIA

Eta gizona etxeratu zanean, emazteak barriro, baiña orain betiko abots meaz:

Baiña, gizona, gizona!... Ori dok gizon baten itxurea!...

Bai, motiboa bere ba jaukanat. Lapurrak urten jausten.

Lapurrak?... Eta dirurik kendu daue?

Bai, enetxoa! Eta arin kendu be!

Eta ez al jak besterik ezer jazo?

Baita, geiago bere!

—Zer geiago egin daue... zer?

Eperdian mun emomazo.

A demoñino esto ziria!... Ni nintzoan lapurtzako ori, ni, ni...

Bai, eta eperdian mun emotean, ire puts-atsa iruditu jatanan.



# ERRIARI BERBA ARG

Mikel geurearen eguna zan. Itzalditxo bat egin neban mezan, Teodosio Goñi'ren ipuiña asalduz. Meza ostean urreratu jatan andratxo bat itanduz: Baiña, Jauna, ain besteko txarra zan S. Migel bere gurasoak ilteko?

Nere erantzuna: Baiña andratxu, txarto uleru dozu nere itzaldia, S. Migel'ek ez dauko aragizko gurazorik, soin bako aingerua da.

Teodosio Goiñikoak, napartar gizon ospetsuak il ebazan gurasoak, ez ekiala, arerioak iruzur egiñik eta gero, Aralar'en, penitentzi egiten egoala, Mikel Deunak askatu eban deabruaren atzaparretatik.

Nire itzaldia naikoa argi ta garbia izan zala uste dot, baiña erri zeeiak, jakintza gutxi daulako, askotan oker ulentzen ditu gauzak.

Ori, egunero ikusten dogun gauza da.

Olako jasokun asko dakiguz guztiak.

Ona emen neuri jasotako beste jazokun bat.

1936'ko guda zan. Nire ezagun zan atezain bat egoan egunkaria irakurten, beragana eldu nintzanean, diñost: Jauna, egunkariak diño Miaka Buruzagiak aurrerakada egin dauala Kordoban. Uste dot laster artuko dogula Andaluzia guztia Franco'ren aurka.

Kontuz ibili gizon, esan neutson: Baleiteke Franco'tarrak gu lenago arrapatzea. Baiña, zer diñozu, Jauna. Franco'tarrak, gu arrapatzeko, Auñamendi-Pirineo igaro bear dabe ta, ori, eziñekoa da.

Gizon ona zan atezain ori, baiña ez jakiña.

Uste eban Andaluziatik Bilboraiño etorteko Auñamendi igaro bear zala, Zelan ekian lutelesti Geografia!

Benetan aundia da erriaren ez jakitea. Ez iakintsun orretan oñarriturik erriagaz nai dabena egiten dabe izlari ta idazlari gaizto askok.

Eslogan galgarri batzukaz, aizeak udagoiengan orbel legorrek lez, bide txarrotara erooten dabe erri gaisoa.

Ba dago zeregiñik erriaren buruak argitu ta bide txarretatik bera aldenduteko.

Gu, sermolariok be, ausnartu bearrean gagoz, zelan diran gure barriketak. Gure jakintzagaz arroturik, askotan gure izketa goi goikoaz eta itz ulergatxakaz erria zorabiotu nai dogu, Eurak esan dagien zenbat dakien gizon orrek- Ori bai jakituna, ta bitartean, erriak ezer ez dau ulertzen edo oker ulertzen dau.

Ez da ori bide zuzena, ez elizan, ez politikan, ez ta erriak irakurri bear dituan egunkari, aldizkari ta idaztietan. Gure arrokeria basterturik, Kristoren antzera itz egin bear dogu, errikoi, apal, leun ta argi ta garbi.

Arrokeriak eta txarkeriak egiten dau kalterik irakurle ta entzuleen buru biotzetan.

Ekin daiogun erri zeeiaren buruak argitu ta bide txarretatik aldenduten.

## GALLASTEGI'TAR KAULDI

# URKIOLAN AMESLARI

*Iraillen arratzalde argi euzkitsuan aurki naz kalbario deritxon lekuan.*

*Alde guztiak argi egun bero ortan nai eta naiez ames egin bear bertan.*

*Oinpean bedar bigun lore ori usaintsu mosuka orkatillan ori dala poztun.*

*Ixil dira txoriak igaro da aro, kokoan billa dabiz bat egiz aguro.*

*Begira menditara ZUIZAK DIRUDI*

*Aluitz zorrotz zuria dago argi argi.*

*Eskubarattz zabala Mugarra okerra, Unzillaitz zabal aundi Durango aldera*

*Gurutz ganean daula or dago Sabigain Anboto errege lez dagola danen gain*

*Bere malda eguzkik arrastt onetan bizi bizi ioten dau ipiñirik sutan.*

*Bera iruditzen tat zuri epel gozo arrizko bitza dala lur gorin itxaso.*

*Urkiola basoa or emen da laño bedar eta landarak zuriak urkiak.*

*Or diran laño mordok ez dira lañoak baña dira eder ardi on zuriak.*

*Entzun arretaz, lagun entzun belarriak eresi zoragarri be ta arran otsak.*

*Urrunean Oiz mendi, Gorbea goraño be aldean Mañari eta Abadiño.*

*Danen erdi erdian Santutegi bikain*

*Ango eliz gizonak barriztuta orain.*

*Orreik gizon altsuok izan dabe kemen Santu Antontoen eliz au edertzen.*

*Santutegi ortatik Bizkaia danera bai ta euskal errira graziak, begira.*

*Ba leike egotea gure izadian leku bikain zortak eder begietan.*

*Urkiola inguru bai egiz benetan goi goi eder dagola guztien artean.*

**GALLASTEGI'TAR KAULDI**

# ASTIRO

## AMAMA

### ZAR-GAZTE

Amama maite zarra  
elizatik dator  
gutziz zimeldurikan,  
lenago zan gogor!

Lurrera begiratzuz  
nun jausiko ete dan,  
aize aundia bada  
jausko da lurrean.

Oñak tarraz ditula  
bizkar okerturik  
buruan zapi baltza  
azal tximurturik.

Bere oldozmen danak  
aundi ta ederrak,  
bere urteak danak  
on egin beteak.

Txiki txiki biur da,  
lenago lerdenal,  
bizitzak makaldu dau  
ia ia dana.

Aneika asko dira  
berberak esanak  
agurtza goxo goxo  
siñistez beteak.

Euskal sen benetako  
zabalduz semetan  
irakasle izan da  
bai bera benetan.

Amama biotz garbi  
iraun oraindikan  
luzaro urtetan  
gure erri maitean.

Munduak jaramonik  
ez dautso egiten,  
bere bizitza eder  
ez balitza ezer!

Belaunaldi barriak  
zu or ikustean  
biziko dira zintzo  
zure antz antzean.


Bizitza guzti gurtin  
lan eta maitasun  
bete dau bere lana  
zintzo ta zentzundun.

Zarrak gura ditugu  
gaur gure artean  
biziten ikas daigun  
euren gerizpean.

Olako emakumek  
eukiaz guregan  
sortu da euskalerrin  
enda jator baitan.

Amama maite maite  
zu gaur goratzean  
zar guztiak nai doguz  
goratu batean.


15.8



EZKER ESKUMARA: 1. Ave nocturna. Este, ésta. Tele-  
vision.-3. Recuerdo.-4. Mancha. Cuenta, factura.-6. Cali-  
dad.-7. Multar.-8. Agujero.-9. Agujero.-10. Pus. Mor-  
rir.-11. Cuero, piel.-12. Estrella. Pelar. Gato montes.-13.  
Mirar. Palo, vara, asta.-14. Agosto.-15. Cojo. Vanidad,  
pompa.-16. Diario.-17. Desgranar. Tuyo.-18. Yo to decia.  
Pequeño, bajo.-20. Suburbio. Sobaco.-21. Tu mismo. Junto  
al fuego.-22. Como obrar (obrar como). Señorita, maes-  
tra.-23. Tunante. Sueño. Trabajo. Aliento.-24. Epiteto des-  
preciativo.-25. Patriotismo. Aseado.

GOITIK BERA: 1. Insustancial. Tropiezo. Goma visco-  
sa.-3. Primavera. Lujuria. Ansioso.-5. Tanto como este. Di-  
ciembre.-6. Advertencia. Frio.-7. Sacristan. Reloj.-8.  
Dos.-9. Escalofrio. Tierra, mundo.-10. Poder.-11. Ocupa-  
do. Teléfono. Fuste, garbo.-12. Quejido.-13. Himno. Llegar,  
acudir.-14. Ola. Tocino. Sin embargo.-15. Vuestro.-16.  
Abundante. Escarcha, helada. Accion.-17. Maiz (el).-18.  
Oceano. Separar, distribuir.-19. Albañil. Lo dicho.-20. Ven-  
der. Despreciativo.-21. Lo tienes. Silencio.-22. Cruel-  
dad.-23. Orfandad. Junio.-25. Lista. Cuadruplo. Oracion  
(la).

14.8 ERANTZUNA



Gorri

# EUSKERAZALEAK

## LAGUNTZAK URRI

Diruak egiten dausku falta. Eta nori ez?

Ba-daukaguz euskerearen alde, eta Bizkai'ko euskerearen alde lan egiteko asmakizun eta burubide egoki ta ederrak, batzuk ibillian dabiltzanak, baiña diru-laguntzak ez da errez aurkitzea.

Aurreski-kutxak emoten nekatu egiten ete diran edo olakoetan emon al daben dirutza urritu egin ete dan. Eta gure ZER aterateko be gaiztasun bereziak sortzen jakuz, langille guztiak doan lan egiten dauskuela.

Aldundiak naikoa laguntza ona emon dausku, baiña laster banatzen da zerbait egiten asi-orduan.

Eusko-Jaurkaritzak be aldizkariari bere urteroko laguntza emoten dautse, baiña gure aldizkari onentzat oso laguntza laburra da. Zenbaki bat, ille batekoa, aterateko, irakdlan ordaindu bear danaren laurena baiño ez da. Ezer ez.

Eta bata bestearen atxakiaz, len baiño be txarrago ete gabiltzan.

## ASMAKIZUNA

Orduan diru-billa urten-bearrean gagoz eta orretarako asmakizun txiki bat eskiñi dauskue. Ikusi dagi-gun ezer lortzen dogun.

Euskerazaleak Taldeak txarteltxu bat atera dau eta iru illebeterik bein 500 pezeta ordainduko dau txarteltxu orren jabeak. Aurtengo zemendian, azillean, asiko gara.

Eta txartel bakoitxak daukon zenbakia, itsuen zozketan urten dana ba'da, 1.000 pezetako saria emongo jako txarteldunari. Eta ori larunbatetan izan ezkeru 2.000 pezetakoa.

Eta geratzen dana, ezer geratzen ba'da, baietz uste dogu gure laguntzailleak esku-zabalak dirana badakigu-ta, EUSKERAZALEAK TALDEA'ren euskera-ikastegiari laguntzeko izango da.

## IDAZLEAI

ZER aldizkariak orain-artean idaz-lanak naikoa ugari izan ditu, baiña aspaldion urritu egin dira.

Udaldiaren nagikeria baiño ez dala? Arazoa sakonagoa dala uste dogu. Len sarritan lanak bialtzen euskeuzan idazle batzuk isildu egin dira. Itzitasunez uste dogu. Barri batzuk be asi dira idazten, baiña batez beste lanak urriago datorkuz.

Ez da ba dana diruaren arazoa. Zori txarrez, gaiso txar batek naikoak eta bost eragiten dauskuzean, barriak sortzen dira.

Aurrera jarraitu bear ba'dogu, guztion laguntza bear dogu, guztion lana ta guztion dirua.

Eta amaitu orduko, eskerrik beroenak lanak bilalduz eta dirua emonez laguntzen dauskuen, guztiai.

### GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

Erderaz

BARRIAK ETA ARAZOAK


### SAS KI-NAS KI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

munduko goraberak, jazokizunak, barregaiak...



Colon de Larreategui, 14 - 2.º dcha. BILBAO.1

# Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA



BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia